

Krisi ekonomikoaren zama handiena langileek bere gain hartzen ari direnaren erakusle dira, behin eta berriz, ezagutzen ditugun langabeziari buruzko datu kezagarriak. ARALAREk langilegoaren ordezkaria izan nahi du legebiltzarrean, langilegoaren interesen alde egingo du eta horretarako hauen eskariak zuzenean ezagutzen ahaleginduko gara.

Izan ere, gaur datu berriak ezagutu ditugu, eta egunean egunean datuek okerrera egiten dute. Lan ministeritzak emandako datuen arabera, urtarrilean Gipuzkoan 3.000 langabetu gehiago zegoen, aurreko urtean baino %10 gehiago, eta guztira 28.700.

Hala ere, ez dakigu egoerak noruntza joko duen, ez baitauzkagu datu guztiak. Eusko Jaurlaritzak ez dute azken enplegu erregulazioen datuak eman, eta nahiz eta sindikatuek eta alderdi politikoek eskatu, ez dugu informazio osoa jaso. Azkarraga sailburuak emandako azken datuak urtarrilaren 22an egindako prentsaurrekoan eman zituen: 2008an 496 ERE onartu ziren eta 12.794 laguni eragin ziotenak, eta urtarrilaren lehenengo 15 egunetan 77, 1.336 laguni eragin ziotenak. Horiek dira azken datuak, ordutik honakorik ez dugu. Eta beraz, bat egiten dugu sindikatuen kritikarekin. Euskal gizarteak orohar, eta erigile politiko eta sozialek eskubidea dute errealitatea bere osotasunean ezagutzeko. Beraz, Azkarraga sailburuari eskatzen diogu, datu denak eman ditzala, onartutako espedienteenak eta baita bidean daudenenak ere. Eusko Jaurlaritza Espainiako gobernuari leporatzen dion hutsegite berberan erortzen ari da, langabeziaren datuak gutxienesten, gero behin eta berriz berrikusi egin behar izaten dituztela, eta gaitera EREen gaineko informazioa ezkututzen.

Guk gure aldetik, argi adierazi nahi dugu ez zaizkigula onargarriak iruditzen langileekin adostu ez diren EREak eta hauek ez onartzea eskatzen diogu gobernuari. Horrela eginez gero, gure kontrakotasun osoa izango dute.

Aldi berean, Zapateroren jarrera salatu nahi dugu, bankuei likideza emateko bi operazio eta gero, gaur baldintzak jarri eta exigitu beharrean, bankuei eskatu bakarrik egiten dielako, erraztu zaien dirua ez dezatela irabaziak banatzeko erabili, baizik eta kredituak bultzatzeko. Dirua erraztu bai, baina ez zaie baldintzarik jarri, ez dira banku horien akziodun egin, Europako beste herrialde batzuetan bezala (Britania Handia) eta gaurkoa kritiken aurrean aurpegia garbitzeko saiakera bat besterik ez da izan.

ARALARentzat lehentasua da krisia gizarteko sektorerik ahulenek eta langileen bizkar gainean ez erortzea. Hori dela eta proposatzen ari gara politika fiskalean sakoneko aldaketa, langileei mesede egingo dien neurriak hartuz, eta errenta altuenak gehiago kargatuz; babes soziala handitzea, langabezitik bazterkeria sozialerako arriskuan dauden guztiei behar bezalako erantzuna eman eta gutxieneko bizitza duina ziurtatzeko; inbertsio publikoak lanpostu berriak sortzera bideratzea, bereziki lanpostu sozialak eta gizarteari zuzenduak: zerbitzu sozialetan, hezkuntzan, osasunean, ingurugiroaren defentsan... eta ez hainbeste, orain bezala, eraikuntzara zuenduta.

Eta neurri hauekin batera langileen eskubideen alde borrokatzea lehentasuna da ARALARentzat. Langileen ahotsa eraman nahi dugu legebiltzarrera. Eta hori behar bezala egiteko, lan erregulazioko espedienteetan murgilduta dauden langileekin harreman zuzena bilatuko dugu, euren ikuspegia zuzenean ezagutu eta politika publikoak bultzatzerakoan kontuan hartzeko.